



HERRIKO KONTSEILUAREN ERABAKIA ORTZAIZE HERRIA

2025eko azaroaren 4ko saioa

Bi mila eta hogeita bost urteko azaroaren 4an arratseko zortzietan biltzera deiturik, herri honetako Herriko Kontseilua frantses legeak behartu kopuruan bildu da, bilkuren ohiko lekuan Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza saioko lehendakari izanik.

Presente ziren: FALXA Odile, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Ahalordeak: DACHAGUER Peiok LEKUMBERRY Xantxori

Ezin etorriak: AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, HEGUY Antton, GOICOECHEA Iñaki

Saioko idazkaria: FALXA Odile

Deialdiaren data: 2025eko urriaren 31a

Afixatze data: 2025eko urriaren 31a

1. ERABAKIA: ESKOLA PRIBATUEI ONARTUKO ZAIZKIEN ESKOLARATZE FORFAITAREN ETA DIRU-LAGUNTZEN FINKATZEA

(7.5 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari jakitera eman dio Frantziako Hezkuntza Kodeko L.442-5 artikulua araberak, Ortzaize - Arrosa Herri-arteko Pedagogia Elkartearen (HPE/RPI) lurraldean diren kontratupeko ikasgelen funtzionamendu gastuak irakaskuntza publikoko eta maila bereko ikasgelen baldintza beretan kontuan hartzen direla.

Auzapezak Herri Biltzarrari adierazi dio Ortzaize-Arrosa HPEko eskola publikoen funtzionamendu kostua honelakoa izan dela 2024-2025 ikasturtean:

- 29 500,47 euro 45 ikasle eskolaratzeko Ortzaizeko eskolan. CP-CE1 mailetako ikasleen forfaitaren kalkulua ama-eskoletakoetatik desberdina da funtzionamendu gastuak ez baitira berak (besteak beste ABLA-en gastua):

	2024ko ikasturte sartzeko ikasle kopurua	Gastuak 2024/08/01 eta 2025/07/31 artean	2024-2025 eskolaratze forfaitaren zenbatekoa
Ama-eskolak	20	17 447.52 €	872.38 €
	25	12 052.95 €	482.12 €
OROTARA	45	29 500.47 €	

hots, Ortzaizeko ama-eskolan eskolaratuak diren haur bakoitzeko 872,38 €, hots, Ortzaizeko eskolan CP eta CE1 mailetan eskolaratuak diren haur bakoitzeko 482,12 €.

- 12 174,26 € 24 ikasle Arrosako eskolan eskolaratzeko, hots 507,26 € haur bakoitzeko.

Auzapezak jakinarazi du Irisarriko haur bat Ortzaizeko ama-eskolan eskolaratua dela. Ondorioz, ama-eskolan eskolaratua den haurarentzako forfaita (872,38 €) Irisarriko herriari ordaintzea eskatzea proposatu du.

Gainera, Auzapezak proposatu du, Ortzaizen bizi eta herritik kanpo eskola pribatuetan eskolaratuak diren bi haurrentzako eskolaratze forfaita ematea. Auzapezak zehaztu du, Ortzaizetik kanpoko eskola pribatuei dirulaguntza ematea hautazkoa dela, jakinez Ortzaizek eskaintza bera ematen duela bere lurraldean.

SAINT MICHEL ESKOLA

	AMA-ESKOLA		CE2-CM2	OROTARA
IKASLE KOPURUA 2024ko IRAILA	6	4	4	14
IKASLE BATEN URTEKO KOSTUA	872.38 €	482.12 €	507.26 €	
OROTARA	5 234.26 €	1 928.47 €	2 029.04 €	9 191.77 €

Auzapezak oroitarazi du Saint Michel eskolari 3 311,40 €ko aurrerapen bat onartu zitzaiola, 2025eko maiatzaren 6ko erabakiz.

Aurrerapenaren zenbatekoa eskolaratze forfaitaren zenbateko osotik kenduko da.

	AMA-ESKOLA		CE2-CM2	OROTARA
IKASLE KOPURUA 2024ko IRAILA	12	11	5	28
IKASLE BATEN URTEKO KOSTUA	872.38 €	482.12 €	507.26 €	
OROTARA	10 468.51 €	5 303.30 €	2 536.30 €	18 308.11 €

SAINT MARIE DE MAYORGA – DONIBANE GARAZIN DEN ESKOLA (HAUTAZKO LAGUNTZEA)

	AMA-ESKOLA		OROTARA
IKASLE KOPURUA 2024ko IRAILA	1	1	1
IKASLE BATEN URTEKO KOSTUA	872.38	482.12	
OROTARA	872.38	482.12	1 354.50 €

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta deliberaturik,

-Honela **FINKATU DU**, 2024-2025 ikasturteko eskolaratze forfaiata:

- Ortzaizeko ama-eskolan eskolaratua den haur bakoitzeko 872,38 €,
- Ortzaizeko eskolan CP eta CE1 mailetan eskolaratua den haur bakoitzeko 482,12 €.

-KONTUAN HARTZEN DU, 2024-2025 ikasturterako Arrosako eskolan eskolaratzeko gastua:

- 507,26 euro Arrosako eskolan eskolaratua den CE2 eta CM2 arteko haur bakoitzeko.

-**ERABAKI DU**, Irisarriko herriari Ortzaizeko ama-eskolan eskolaratua den haurarentzat 872,38 €ko forfaiata ordaintzea eskatzea,

- **ERABAKI DU**, Saint Michel eskolari 9 191,77 euroko diru-laguntza onartzea (5 880.37 € + 3 311.40 €) 2025 urterako,

- **ERABAKI DU**, Ortzaizeko Ikastolari 18 308,11 euroko diru-laguntza onartzea 2025 ikasturterako,

- **ERABAKI DU**, Sainte Marie de Mayorga eskolari 1 354,50 euroko diru-laguntza onartzea 2025 urterako,

- **BAIMENA EMAN DIO**, Auzapezari, gai horri buruzko agiri oro izenpetzeko eta behar diren izapideen egiteko.

Jardunean diren kideak: 15

Presente direnak: 8

Adierazi diren bozkak: 10 (9 presente eta ahalorde 1)

ALDE: 10

KONTRA: 0

ABSTENTZIOA: 0

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZE, 2025eko azaroaren 10ean

Auzapeza:

Jean-Marc OÇAFRAIN

Honako akta indarrean izanen da,

2025eko azaroaren 13an argitaratu edo jakinarazi ondotik eta egun berean suprefekturara igorri ondotik.